

Goi

Goierritarra aldizkaria

408 zenbakia 2011ko urriak 7



**ARRASTOAK
ORMAIZTEGIN**

BELOKI

20 urte
Euskal Herriko
plazak girotzen



Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net



Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29 Lakuntza (Nafarroa) Tel.: 948 57 60 68

Sukaldeak

Zeramikak

Erreformak

Bainugelak

Beheko suak



LACUNZA

www.lopetegi.es



Ekaitz Goikoetxea

Orduete... Orduete, orduete den. Beasaindik Burlatañoko bidea, 79 kilometro. Ordueten DBHko ikaslel ergatiboa eakutsi diezaieken. Ordueten bizitza oson ikasitakoa ahaztu dezaiken. Orduete, 88.776 pinporta harear-erloju baten. Orduete, attonan bazkalostetako lokuluxka. Orduete, larrualdi gozo bat, jo aurreko zizka-mizka eta ondoko zigarrotxo ta guzti. Orduete, 27 telefono dei.

Ordueten bost urte baño gutxioko 1.000 ume baño gehio hiltzen dittun mundun gosez. Orduete, 1.123 karaktere. Orduete, 107 zortziko txiki. Orduete... Ez, orduete orduete baño gehio den. Orduete (,) orduete asko dittun. Ez al zan iruitzen?

Orduete, iraillekin batea orduete lektibo bat gehio den Iribas jaunak Nafarroko irakasleoi asten sarrazten diuna. Ta gu hasarre. Alperrek gattun, nunbait; alperrik den, bakiñ. Ta gu hasarre, bai, orduete orduete baño gehio baiten gue institutonñe. Orduete, 2,67 irakasle 64ko klaus-tron. Orduete, 46 zaintza asten. Orduete, liburutegiko taldea. Orduete, genero berdintasunekoa. Orduete, Lotune aldizkarie. Orduete, irakaslen formakuntza. Bai, orduete

EZkuntza den Nafarroko Gobernuk gue

ikaslel eskaintzen diena. EZkuntza, H ik


bae, bai, aurreztu beharra zaon, bakiñ.

orduete baño gehio den. Orduete (,) orduete asko dittun. Ez al zan iruitzen?

Hoixe den ba pordepronto ordueteatik gue institutok aurten aurreztuko dona, lau zero Abiadura Haundiko Trenan 8,5 kilometro 42.000.000 euro kostatzen (kosta, bai, balioa ikusteko baitzeon) dan herrin. Azala behar din, gero.

Jarduera osagarriari, ez; formakuntzai, ez; sormen bide-ri, ez; kalitateri, ez; eskola publikori, ez. Bai, EZkuntza den Nafarroko Gobernuk gue ikaslel eskaintzen diena. EZkuntza, H-ik bae, bai, aurreztu beharra zaon, bakiñ.

Orduete, orduete baño gehio pasa diñat orduetez literatura eitten. Literarioki, filosofikoki. Baño, matematikoki, orduete zenbat denbora den matematikoki?



Irati Goikoetxea

...kronometroa martxan jarri diat... Hiri ze eantzun ezin asmau ta ikaslangana jotzea erabaki diat... berroeita hama-bost minutu denboraz hizketan... matematikako klasen. Hasteko erlojuk izkutatze-ko eskau zieat, ta begik itxeko gero. Pentsau daikek bai, baten batek galdetu dola... "begik itxita baldin baditueu, zertako izkutau erlojuk?". Hurrungo klasen tentazioz hitzeingo zieat, bakik, hoi_re matematika izango_ek; honuzkeo jabetzen hasita izango ittuk ta... ikasi beharko_itek tentazio bat ta tentazio bat bi tentazio baño dezente gehio diela.

Orduetea poesia hautsi bat omen dek, ta bi kiloko muxu baten izerdi arrastoa... baten bat e ausartu_ek denboran deribatue zulo haundi bat dala esaten ta atzeko parten esaitzen dan mutiko zirikatzailea arnas-hotsak zenbaitzen hasi_ek... itto ez danen... Kontue dek beak eman dila bila nenbilen eantzune: orduete ittotasun baten arnasaldie dek.

Ittotzen ai gaittuk bai, ta ez zekiat denborea baño lehen igeri itten ikasiko ote deun. Ez, etzak pentsa beso-hanka

Ittotzen ai gaittuk bai, ta ez zekiat

denborea baño lehen igeri itten

ikasiko ote deun.

parek nola-hala astintzen ditteula ta salbu geanik. Igeri ittek zerbait koplikatugoa izan behar dik. Errekak uhertuta zetoze, arre. Ta horretxek ematen ziaik bildurrik haundiña, gardentasun ezak. Etziutek (haik) eakutsi nahi ta ez diau (guk) ikusi nahi. Danok zaku beren. Ta bakik... zaku muturrei korapilloa itten zaionen, ahoa zabaltzek ez dik arnas-hatsa ziurtatzen. Errekak uhertuta zetoze, arre. Ta gizartea so ikusten diat. Ta arre ta so arten... bakik... astoa zer suma! ... kronometroa... ja!

Begik zaaldu ta erlojuk falta.. ikasle gaixok! Denborea_re lapurtu itten zieau. Hiru mila seiehun ta bat segundo behar izan dizkiat azken puntue hemen jarri nahi nola erabakitze. Erabaki baten neurrie, akaso hoi_re izango_ek orduete baten denborea.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Goi
Goierriarria aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Klitxeak klitxe dira, eta besterik ez. Barrua da garrantzizkoa. Barrua ikusteko, pentsatu egin behar. Pentsatzeak aberastasun handia ekarri ohi du.



Dionisio Amundarain

Titulua balizko irakurlearen esku

G OIERRITARRA-tik iritzi-artikulua eskatu didazue. Zertaz idatzi? Ez noa titulurik ezartzera, lantxoak bukatu arte.

Zertaz idatzi? Gero eta zailagoa benetan. Hain adin handiko batek zer esan?

Ba, bihoa, nahas-mahas bat izango bada ere.

Oso zail gertatzen zait askotan hango edo hemengo artikulua bat osorik irakurtzea; ez beti, bai askotan. Orobat zenbait solasalditan parte hartzea ere, aktiboki nahiz pasiboki. Zergatik? Oso arin idazten da askotan, oso arin hitz egiten. Gauzak bere osotasunean hartu gabe, gauzak bere lekuan –testuinguruan, esaten dute adituek– jarri gabe. Eta ausartzen bazara esaten «Nolatan onartu dute artikulutxo hori halako egunkarian», gainean duzu erantzuna ezpain txorrots: adierazpen-askatasunagatik.

Hori horrela bada, diot neure baitan, jokatzeko askatasunagatik dago hainbat eta hainbat jende preso. Izan ere, adierazpen-askatasun hori bezala, hala jokatzeko askatasuna ere. Indarraren arrazoia. Nola konpondu korapiloa?

Klitxeak klitxe dira, eta besterik ez. Barrua da garrantzizkoa. Barrua ikusteko, pentsatu egin behar. Pentsatzeak aberastasun handia ekarri ohi du.

Niretzat, adierazpen-askatasuna ez datza edozer gauza esan edo idatzi ahal izatean. Hori baino serioagoa da. Gipuzkoan sortzen den zaborrarekin zer egin aztertzen ari dira (hala izango ahal da!, aztertuko ahal dute, politikarian gelditu gabe); bada materiala –organikoa nahiz beste– ez den zaborrik gure egunkarietan, gure irratiaren, gure telebistetan, gure solasaldietan... Zer pena denbora-pasa edo lasaitze aldera eseri eta zirtzilkeria hutsa besterik ez izatea ikusteko edo entzuteko! Askotan, ez beti. Eta pentsatzen jarri eta zer-nolako gizartea ari gara egiten?, galdetzen diozu zeure buruari. «Terroristen» indarkeriaz hitz egiten dutenen kasuan bezala; zein indarkeriaz ari dira? Somaliakoak arrantzaleen kontrako indarkeriaz ari omen dira? Terrorista madarikatuak! Baina zeri ari zaizkio aurre egiten Somaliakoak, legeztatutako indarkeriari ez bada? Nazioarteko urean ari omen dira. Somaliatik hainbeste kilometrora. Eta? Zeinek erabaki ditu erabaki horiek?

Bai. Benetan arinkeria da asko gure artean. Eta arinkeriak ezin izan beste fruiturik arinkeria ez bada. Indarkeriak, legeztatuen izanik ere, ezin ekarri indarkeria baizik. Zaborrak ezin sortu zaborra baizik. Eta zaborrari adierazpen-askatasuna deitzen zaionean...

Duela gutxi entzun nion goizeko irratiaren solaskide bati, hitza eten ziolako-edo, beste bati esaten, hitzez hitz ez bada ere: hemen ez du balio elizan erretorearena egiteak. Beno. Bilboko Kukutza sonatuaren auziaz ari ziren. Benetan txundigarria irudituzitzauden beste bat elizako erretorearena egin nahi izateaz salatu zuen Andoni Unzaluren arrazoiketa; ez zidan ezer ere argitu Kukutzarena. Ezta, bestalde, salatua izan zenarenak ere. Ezta beste askorenak ere, adibidez, gaurko GARA (2011-09-26) Ramon Zallok dakarren «Kafka en Kukutza» delako artikulua ere.

Eta joan den igandekoa (2011-09-25) GARA! Donostian Parte Zaharrean gazte batzuk azken hogeitun hutsik zegoen etxe bat okupatu omen, eta «Goizean, eraikineria iritsi orduko, Herrizain batzuek halakorik ez egiteko aholkatu zieten, eraikina baldintza txarrean zegoelako. Donostiako Udaleko jende bat hurbildu zen. Gazteek segurtatu zuten barneak garbitu behar handia duela, baina egitura egonkor dagoela» (itzulpena nirea). Galderatxo edo beste otu zait: Bat. Nire aipu horretako bigarren esaldiko jendeak zer esan zien gazteei: eraikina baldintza txarrean dagoela? Batetik, ez da ezer argitzen; bestetik, badirudi, nire aipuko hirugarren esaldiaren arabera, hori esan ziela Udaleko jendeak ere. Bi. Gazteek diotenez egitura egonkor badago, nolatan diote besteek egoera txarrean dagoela; soilik, zikina dagoela?, egitura gaizki dagoela? Ezin ezer garbi ateratzen. Ez ote eman behar albisteak argixeago? Nolanahi den, zer egin edo zer egin behar du Donostiako Udalak okupatua den etxe batekin? Kukutzarena? Albisteak horrela, airean, uzteak ez du ematen zaborra ez beste zerbait denik.

Eta gobernukide batena soilik aipatzeko, balegoke mila gauza antzeko, Aresena. Presoen taldearen izenean ordezkariak Gernikako akordioa sinatu dutelarik, askok dio aurrerapauso handia izan dela, eta Espainiako Gobernuari legokioketela hurrengo pausoa ematea. Eta Ares-ek: «Izango da horretarako astirik!» Lurrunean igeri ikusi nuen neure burua, lurra hondortu bailitzaidan. 800 herri-lagun eta ahaide eta lagun berenak eta bost jasaten urtea joan urtea etorri eta, a zer gizatasunezko ateraldia!

Ez da, ordea, dena zaborra. Bada atseginez irakurtzekorik eta entzutekorik. Besteak beste, joan den igandean gertatu zitzaizkidan: askotan bezala jendaurrean jardun ordez, jendearen artean entzule eta ikusle. Poz eta atsegin ederra!

Hasieran bukaerarako utzi dut lerrokada honi titulua ezartzearena. Bukatzean, hobeto iruditu zait lan hori balizko irakurlearen esku uztea.

Baratze ekologikoa (I)

Baratze ekologikoa antolatze-ko Gaspar Caballero de Segoviaren metodoa oso egokia da, Araban azken urte hauetan asko zabaltzen ari dena, ikastetxeetan, zahar egoitzetan, udaletxeetan, nekazarien artean... lur eremu txikian egiteko metodoa eta manipulatzeko erraza.

Gaspar Caballero de Segoviaren metodoa Mallorcan sorturiko sistema bat da. Berak, bere lurretan urte askoren buruan eginiko esperientzia guztiak kontuan hartuta sortutakoa.

Metodo hau oso sinplea eta erraza da, leku txikian barazki ekologikoak sortu daitezke, ur kantitate minimoa erabiliz eta lan eta mantenu txikia eskainiz paradei.

Sei puntu nagusi ditu metodo honek eta hauek dira:

- 1. Crestall paradak.** Parada 1.5 metroko zabalerako errektangulu bat da. Luzera ezberdina izan dezakete (etxerako baratzak 3-6 metro bitartean edukitzea gomendatzen da). Crestall 'Fems de basa' deitzen zaion lur gaineko kobertura da (konposta) lurraren gainean jartzen da, ez da lurrarekin nahastu behar. Mulching bat bezala jarri behar da paradetan.
- 2. Ez da 'Parades en Crestall' zapaldu behar.** Kontuan



izan behar da parada bakoitzaren inguruan 50 cm-ko bidea utzi behar dela. Nahiko leku baldin badugu, erdiko bideak metro bateko zabaleraz izatea komeni da, horrela bertan ibili eta karretilarekin maniobrak egin ahal izango dugu.

- 3. 'Fems de Bassa'.** Mallorcan konpost autoktonoa da. Lurrari eman diezaioketgun janaririk onena litzateke. Lurrari era erraz, merke eta ekologiko batean itzuli diezazkiokegu behar dituen elikagaiak. Konposta egiteko era ezberdinak daude

eta bakoitzak bere erara egiten du. Kontuan hartu behar dugu geroz eta dibertsitate gehiago orduan eta hobeagoa izango dela lortzen dugun konposta.

- 4. Ereintza.** Ohiko nekazari-tzan baino erein marko txikiagoak erabiltzen dira. Landareek espazio txikia behar dute garatzeko, behin hazi eta gero horri bakoitza bestearekin ukitu eta gero, bertan mikroklima egoki bat sortu eta horrela bertan hezetasuna egokia geratuz. Horrela ura aurrezteko lortzen dugu eta belar txar kantitatea txikia izatea lortu. Gomendagarria da, landare aromatikoak eta lore ezberdinak landatzea paraden artean. Paraden artean ladriluak ere jarriko dira. Ez da gomendatzen ez patata eta ez boniatorik ereitea paradetan.

Informazio gehiagorako: www.gasparcaballerodesegovia.net/es/

JAKIN BEHARREKOAK

Plazatik, internetera jauzi. Salmenta moduak aldatuz doaz egunetik egunera. Baseritarrak produktua modu zuzenean saltzea kezka duen moduan, kontsumitzaileak geroz eta ardura gehiago du erosten duen produktua zein jatorri duen jakiteko. Honen aurrean aldatuz doaz salmenta moduak eta hauek internetera ere iritsi dira, Hermeus gizarte sare berriaren bitartez.

BasHerri taldeen mugimendua etengabe ari da zabaltzen Gipuzkoan. Dagoeneko, 30 daude martxan Gipuzkoa osoan, eta kopurua etengabe hazten ari da. Baseritarrak eta kontsumitzaileak elkartzen dituzte talde guztiak. Taldeak erabakitzen du zer eta nola kontsumitu eta zer ekoiztu. Elikadura burujabetza helburu duen sistema horrek baserriko produktuez elikatzeko aukera ematen die Gipuzkoako 500 familia baino gehiagori.

LIBURUA

Lurra zorua bailitzan. Egilea: Iñaki Petxarroman. Gogoeta egiteko gonbita egiten du liburuak. Egutero 1.23 hektarea lur itotzen dira porlan azpian EAEn. 1990etik 2008ra berotegi efektua sortzen duen gasen isurketa %47 handitu da gure herrian. Legea nahi erara baliatu dugu natura-guneak garapen eroaren hankapean hartzeko. Itotzen, esatera-ko.

Baratze ekologikoa antolatzeko Gaspar Caballero

de Segoviaren metodoa oso egokia da,

ikastetxeetan, zahar egoitzetan, udaletxeetan,

nekazarien artean... lur eremu txikian egiteko

metodoa eta manipulatzeko erraza.

LEIAR

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g

☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea

☎ 943 88 60 70

BEASAIN

KIKO ENEA taberna

Ostiraletan eta larunbatetan
plater konbinatuak

Bazkari eta afariak enkarguz

Gipuzkoa, 13

T. 943 08 48 11

ORDIZIA



Ikastaroa Beasainen

Beasainen, Bioquiros zentroan egiten dituzte ume-eramale ikastaroak. Urrian eta azaroan bi ikastaro egingo dituzte: urriaren 14an, 4.30etan eta azaroaren 18an, 4.30etan. Lekua mugatua izaten denez, izena aurretik ematea komeni da. Bioquirosen bertan edo meitaimaitie.com-era deituta (635700986). Ikastaroak gogainik dira.

Ataungo Ander Gorostitzuk eta Gloria Urkolak meitaimaitie.com enpresa sortu dute ume eramaleak eta beste hainbat produktu gizarteratu eta saltzeko:

“Meitaiak dena aldatu zuen gure bizitzan”

Duela lau urte jaio zen Peru, Gloria Urkolaren eta Ander Gorostitzuren semea. Zesarea bidez jaio zen eta bularrik ez zuen hartu Peruk. Atxikimendu arazoren bat edo beste izan zuten semearekin eta meitai ume eramalearekin topo egin zuten. Bizitza aldatu zitzaion Gorostitzu-Urkola familiari. Meitaiarekin batera, umearen hazkuntza era batekin egin zuten topo. “Nahiz eta hazieran oztopo asko izan genituen, gure seme Peru hazteko modu propioa izan dugu: atxikimenduan oinarritua, maitasunaz, kontaktuarekin, begiradaz eta ilusio askorekin”.

Ataungo bikoteak, beraiek bizitako esperientzia eta beraiek semearen hazkuntzan erabilitako bitartekoak gizarteratu nahi dituzte. Meitaimaitie.com webgunea sortu dute horretarako. Interneteko denda da. “Denda honetan aurkituko duzuen guztia Peruren hazieran erabili ditugun gauzak dira, asko lagundu digutenak bide hau egiten, gustuko ditugunak eta konbentzitu gaituztenak”. Batez ere, ume eramaleak eta oihalezko pardelak saltzen badituzte ere, beste osagai batzuk ere saltzen dituzte: biberioiak, jostailuak, emakumezkoarentzat hilero-koarentzat osagaiak...

Dena den, Internet bidezko denda baino askoz ere gehiago da Meitaimaitie.com, hazkuntza mota baten erakusleho izan nahi baitu. Euskal Herriko hainbat herritan, tai-

Begiradaren garrantzia

“Hau dena hazkuntza mota bat ere bada guretzat: lehenengo urtean kontaktua ematea oso garrantzitsua da. Begirada, berarekin egon... Umeek ere askotan siestak gure gainean edo ondoan hobeto egiten dituzte, luzeagoak. Askotan jendeak osagai bat bezala ikusten du ume-eramailea baina azkean filosofia bat ere bada. Gure ustez esanahi handiagoa dauka. Orain arte, ez ginen mundu honen oso zale, hazkuntza naturalaren eta gauza hauen oso zaleak ez ginen Peru jaio arte. Orain hazkuntza natural horren zale bagara, baina muturreko jarrera izan gabe. Guk ere kotxe silla badaukagu eta asko erabili dugu. Gauza bakoitzak bere momentua dauka. Ez gara radikalak. Ume eramaleen kontua “hippyen” munduarena dela dirudi, edo sektore batena. Katalunian ez da horrela baina hemen jende oso hippyak eraman ditu. Oso sektariatua dago. Baina gu ez gara hippyak”, diote. Dena den, ume eramaleak erabiltzean gure gizartean ondoregi ikusita ez dagoenaren irudipena ere badaukate. “Denetik entzun behar izan dugu: pobreen kontua balitz bezala. Kotxekapotarik erosteko dirurik ez daukazu? Galdetzen diete askotan. Ez dago oso ondo ikusia hainbat belaunalditan. Gure aitona-amonek ez zuten kotxe kapotarik, gure gurasoen kontua da gehiago. European, kotxe kapotarik gehien, Espainian saltzen da, eta gehien Euskal Herrian. Ingalaterran eta Alemanian, oso kotxe kapota gutxi saltzen dira eta sinpleak, han ez dituzte guk bezelako dirutzak gastatzen kotxe kapotetan. Taldean sentitzean errazagoa da. Bakarra ez zarela ikusteak asko laguntzen du”.

Laura Gutman terapeuta argentinarraren jarraitzaileak dira. “Liburu asko idatzi ditu hazierari eta amatasunari buruz. Berak asko erabiltzen duen hitza, begirada da. Umeekiko begirada hori. Ume batek ez dizu eskatuko 3-4 urtera arte, behar ez duenik. Zerbaitegatik eskatzen dituzte gauzak eta garrantzitsua da lehenengo bi urteetan behar horiek betetzea eta asetzea, gero handiagoa denean, bera indartsuagoa izan dadin, autoestimua handiagoa izan dezan, hutsune emozionalak izan ez ditzan handitan beste gauzekin bete beharrekoak... Ume batek, lehenengo bi urtean, jana edo bularra eskatu duenean eman ez bazaio, besoak eskatu dituenean ez bazaizkio eman... nire ustez horrek faktura pasatzen du umearen izaeran. Gutmanen filosofia hori da. Psikologia sistema bat sortu zuen lantzeko, ‘biografia humana’ izena duena. Guk egin dugu biografia, biok. Guk asko jarraitzen dugu Laura Gutman”.

lerrak ere ematen ditu bikoteak.

Ikastaroak

“Guretzat, gure lana eta produktuak zabaltzeko modurik onena, tailerrak dira. Dohainik izaten dira tailerrak”. Beasainen, Zarautzen, Azpeitian, Hondarribian, Donostian, Billabonan eta Lesakan ikastaroak edo tailerrak ematen dituzte Urkolak eta Gorostizuk. Ume eramaleak eta oihalezko pardelak erakutsiz, abantailak eta desabantailak azalduz, beraien filosofia zabaltzen aritzen dira. 3 orduko tailerrak izaten dira. Izan ere, “ume eramale gehienak eramaten ikasi egin behar da. Nola jantzi behar diren, korapiloak egiten ikasi behar dugu, adin bakoitzari dagokion postura eta ume eramalea...”

Adin bakoitzarentzat ume eramale ezberdina proposatzen dute ataezkarrek, beti ere, haurraren bizkahezurraren forma errespetatuz. “Umea jaiotzen denean, bizkarhezurra C forman dauka, sabelaren forma. Guk, S bikoitza formakoa dugu, lepota eta gerrian kurbaturarekin. 2 hilabeterekin lepoko kurbatura sortzen hasten da, umea burua heltzen hasten denean, 6 hilabeterekin, eserita mantentzen hasten denean, bere kabuz, gerriko kurbatura sortzen da. Beraz, bizkarhezurraren forma errespetatu behar da. Umeak aldaketa handia ematen du sei hilabeterekin, eseritzen hasten denean”.



tximiniak / bajanteak / teilatuak / faxadak
/ bizi bideak / segurtasun neurriak

T : 680641401 - 676952968 - www.nanarri.com
aitorg@nanarri.com - aitore@nanarri.com





Zuriñe
Ederginiza

MANIKURAK, PEDIKURAK, AURPEGIKO TRATAMENDUAK, GORPUTZEKO TRATAMENDUAK, MAKILAJEAK, DEPILAZIOAK, BRONTZEZTATZEAK...

Urrian promozioa!

Tel.: 647 314 771
Garmendia Otaola, 5 - behea 3
BEASAIN

Ume eramale ezberdinak

Bost ume eramale merkaturatzen dituzte Ohaurraren adinarean arabera sailkatuta. Meitaiak eta bandolerak Gloriak josten ditu.

Fular elastikoak:

Lehenengo egunetik erabiltzeko, fular elastikoak daude. “Ume jaio berri edo hilabetetako batentzat, eta fularra lotzen eskarmenturik ez duten gurasoentzat, fular elastikoa ume eramaille oso atsegin eta erabil erraza da, aurre-lotu modura erabili daitekeelako, erabat lotu eta ondoren umea sartu. Ukitze atsegina du eta umearen lehen hilabetetan denbora luzez eramateko aukera asko ematen dizkigu”.

Fular elastikoan erabilgarritasuna ikusteko, fular elastikoaren jatorria azaldu digute ataundarrek: “ fular elastikoa sortu zutenek, haur goiztiarra eduki zuten. Haur goiztiarrekin demostratu zen, kanguro metodoa zela egokiena. Estatu Batuetan, aberatsek, haur goiztiar bat baldin bazuten, ospitalik onenetan uzten zuten eta egunean bitan bisitatzen zituzten. Ume gehienak hil egiten ziren. Pobreek ospitalik ordaindu ezin zezaketeenez, etxera eramaten zituzten, eta umea gainean eduki eta titia ematen zieten, eta hauetatik gehienak bizirik ateratzen ziren. Konturatu ziren, zerikusia zuela kontaktuak. Kanguro metodoa hortik sortu zen. Metodo hori, haur jaioberria, ahalik eta denbora gehienean, amaren gainean egotea datza. Horretarako sortu zen fular elastikoa. Fular elastikoa, lehenengo urtebetean erabiliko litzateke, umeak pisu handia hartzen duenean, ez luke balioko, elastikoa delako”.

Fularra:

Fularra, ume-eramaile orokorra da, “sinpleena eta aldi berean konplexuena. Korapilo batzuk egiten jakinez gero edo ikasiz gero, praktika pixka batekin ume-eramaile hoberena izango da, umearen garai bakoitzari egokitu daitekeelako korapiloa aldatuaz”. Fular elastikoa ez bezala, haurraren fase ezberdinetan erabil daiteke, jaiotzetik nahi den arte.

Meitaiak:

Ez da 6 hilabete inguru arte erabiltzea komeni umea bera bakarrik eserita mantentzen den arte. Umea handi egin arte erabil daiteke. Urtebete inguru izan arte ez da komeni atzealdean, bizkarrean eramatea, kontaktu bisualik ez dugulako, gehien bat bakarrik bagoaz.

Bandolerak:

Bandolera, oihal zati luze bat eta bi eratzunez osatutako ume-eramailea da. “Kokatze azkar bat errazten digu eta ajuste erraza. Eramate asimetrico oso eroso eman du eta umeak behin burua heltzen duenetik, hau da 2-3 hilabete inguru, eramatea nahi duen arte erabili daiteke. Bandolera ezin daiteke denbora askoan eraman. Asimetricoa da, umea alde batean dago eta ebila beste aldean. Oso eroso da, oso azkarra da, baina ezin da denbora luzean erabili, gehiago nekatzen delako. Kotxe kapotakin goazenean eramateko ume-eramaile egokiena da, beti bukatzen dugulako denok denboratxo batean umea kalkan eta kotxeari bultzaka”.

Motxila ergonomikoa:

Sei hilabetetik aurrera, bizkarhezurra formatzen hasten denean, bakarrik eserita egoten direnean, motxila edo meitai erabiliko genuke. “Motxila ume eramaille eroso da, bai umea eramateko eta bai eramaillearentzako. Baina erosoena jarri eta kentzeko da, jartze oso erreza eta bizkorra duelako. Mendiko motxila baten moduan lotzen da eta oso oso egokia da mendira joateko zein paseotara joateko”.



Ekialdetik datorren ume eramaillea

Interneten, foro batean izan zuen Gloria Urkolak meitaiaren berri. “Peruk 7 bat hilabete zituenean, haziera foro batean lagun batek beste bati esaten zion utzitako Meitai itzuli behar ziola. Zer izango ote da Meitai hori? Google-eko leiho berri bat ireki nuen, Meitai idatzi eta sarrera piloa atera zitzaizkidan... horien artean bat egin zitzaidan deigarriagoa... “Nola josi zure Meitai”. Sartu egin nintzen, irakurri, Peru hartu nuen eta Ordiziara joan nintzen, oiha-lak eroatera, loneta lisoa 1,8m.ko tirak egiteko eta koloredun loneta gorputza egiteko. Etxera itzultzean, oiha-lak moztu nituen, zatiak josi, denak elkartu, berriz josi,

eta gure lehen Meitai izan nuen eskuetan. Ander bulegotik 21:30ak aldera itzuli zen, eta nire azken proiektua erakutsi nion. “Meitai izena du!”. Hurrengo egunean probatu genuen, eta geroztik Peruk ia hiru urte izan dituen arte etxean zein kalean inoiz falta ez den osagarria izan da. Eta horrela hasi ginen Peru gainean eramaten, eta honek dena aldatu zuen gure bizian. Peru guregandik gertu eramatearen onurak sumatzen hasi ginen, oso gustuko zuen Meitaiaren lokartzea, gehiago eta hobeto lo egiten zuen, eta atxikimendua sortzen joan zen... Dena aldatu

zen”, zehaztu du Gloria Urkolak. “Meitai ingurukoei oparitzen hasi nintzen. Lagun batek berak saltzeko 10 bat eskatu zizkidan. Blog bat egin nuen meitaiak saltzeko”, gaineratu du.

Jatorriz ekialdetik datorren ume eramaillea da meitai, “txinatarrak dirudienek eta ehunka urte atzetik datorrena omen da. Meitai hitzak “lotu daiteke” esan nahi omen du, eta funtsean hori da Meitai bat, tela zati lauki bat, erpin bakoitzean tira luze batekin gorputzera lotu ahal izateko. Txinan andreak arroz soroetara lanera zihoazenean umeak bizkarrean lotuak eramateko erabiltzen zuten ume eramaillea da. Geroztik eta gehiago ikusten da orain mendebaldean.

“Nahiz eta hasieran oztopo asko izan genituen, gure seme Peru hazteko modu propioa izan dugu, atxikimenduan oinarritua, maitasunaz, kontaktuarekin, begiradaz eta ilusio askorekin”.

Oihalezko pardelak, pardel birrerabilgarriak

Meitaimaite-koek, beste arlo bat ere lantzen dute: oihalezko pardelak edo pardel birrerabilgarriak, jasangarritasunaren gaia-ekin bat eginez. Ildo horretan, emakumezkoen hilerokoentzat ere hainbat osagai birrerabilgarri saltzen dituzte. “Pardelek eta konpresek desintegratzeko urte asko behar dituzte. Sasietak emandako datuen arabera, zaborraren %11 pardelek osatzen dute eta pardel bakoitzak 500 urte behar ditu desagiteko”, dio Gloria Urkolak.

Ingurugiroari egiten zaion kalteaz gain, dirutan ere asko aurreztuko omen litzateke oihalezko pardelak erabilita. Ander Gorostitzuk eman dizkigu datuak: “haur batek bi urte eta erdi an erabiltzen baditu pardelak, sei pardel eguneko, 2.200 euro kostatuko da. Bi ume, 4.400; hiru ume, 6.600 euro. Oihalezko pardelak, % 100ean erabilita, 800 euro gastatuko dira lehenengo haurarekin; bigarrenarekin eta hirugarrenarekin, asko jota, papera bakarrik erostia nahikoa da. Haur batekin aurreztu egiten da, bi edo hirurekin zer esanik ez”.

Dena den, poliki-poliki ari dira gai hau gizarteratzen, gai zaila iruditzen baitzaie. “Oso zaila ikusten dugu. Oraindik jende bat ez da gai, zaborra bereizteko. Nor hasiko da pardelak garbitzen? Momentuz, honetan oso kontzientziatutako jendea sartzen da, edo azalarekin arazoren bat izan duen jendea. Baina guk probatzea gomendatzen dugu. Probatzeko errazena, gauekoarekin hastea da”, diote ataundarrek. “Haurtzaindegietan zenbat kilo pardel ateratzen den zaborretara? Nik uste dut eguneko pardel batzuk kendu daitezkeela oihalezko pardelekin. Ez da hain zaila. Pixkanaka egin behar da, sentsibilizazio kanpaina on batekin”, diote.

Aurreratu dutenez, Sasieta Mankomunitatearekin elkarlan bat egiteko hizketan dabilta. “Ingalaterran honelako pardelak erabili izan dituzte. Ingalaterran metodo mistoa erabili izan dute. Gu ere, mistoaren aldekoak gara. Umeak gastroenteritisa baldin badauka ezin zara oihalezko pardelekin erotu. Edo oporetara bazoaz ere ez”.

Pardel ezberdinak

Horretaz guztiaz gain, haurraren osasunerako ere oihalezko pardelak hobeak direla diote Urkolak eta Gorostitzuk. “Erabili eta botatzeko pardelak gel kimiko piloa dute, eta geroz eta ume gehiago daude azaleko arazoak dituztenak pardelak direla eta”.

Tailerretan ere hitz egiten dute oihalezko pardel ezberdinetaz, ikusi eta probatzeko. Eta banakako arreta ere ematen dute. Lau hilabetera arte ez dute oihalezko pardelik gomendatzen.

“Amak nahikoa lan dauka bularrarekin eta haurrak egiten duen kaka, oso arina da. Mantxak uzten ditu. Ordura arte, ez du merezi”.

Bi atal ditu oihalezko pardelak. “Gure gurasoek erabiltzen zuten metodoa, baina teknika hobetuta, materiala ere hobetu da. Kanpoko zatia, iragazkaitza da, mikroporoa daukan sistema, transpirableak dira. Konpresa bat sartzen zaio. Ia pardel normal bat bezala da. Klipekin ixten da. Jende asko hasi da horrelako pardelak erabiltzen, azaleko arazoak dituelako”.

Eguneko eta gaueko pardelak daude. “Egunez, 3-4 orduz behin pardela aldatzen diozu eta erosotasun gehiago behar dute, ibili egingo direlako. Forma ere ezberdina izango da. Gauekoetan, 8-9 ordutan pardelik aldatuko ez diozuenez, absorbentzi gehiago behar du. Gauekoa, dena da absorbentea. Gau osoa irauten du. Gehiago behar izanez gero, poltsikoa ere badauka beste konpresa bat sartzeko”.

Teknikak aurreratzen ari dira eta pardelak garbitzeko errazagoa izan dadin, “patata fekularekin edo artoarekin egindako paperak erabiltzen ditugu. Pardelan jartzen da umeari jantzi baino lehen. Papera jarri eta kaka paperean geldituko litzateke eta zaborretara joango litzateke. Pardela garbitzeko askoz ere errazagoa da”. Arropa garbigailuan garbitzen dira pardelak. “Arropa normalarekin garbitzen da”.

Emakumezkoentzako

Haurren ildo beretik, emakumezkoentzat, hilerokorako, material berezia saltzen dute meitaimaitiekoek. Telazko konpresak eta “tanpaxaren partez, kopa... 12 orduz irauten du. Dirutan asko aurrezten da, 5 urterako balio du-eta. Edoskitzealdirako diskoak ere badaude, esnea xurgatzeko, askoz ere kalitate hobeagoak dira. Arropa garbigailuan garbitzen dira”.


“Sasietak emandako datuen arabera, zaborraren %11 pardelek osatzen dute eta pardel bakoitzak 500 urte behar ditu desagiteko”

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate





Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrira.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU






Imuntzo eta Beloki trikitilari bikoteak 20 urte daramatza Euskal Herriko plazak girotzen

Eleuterio Jauregi Beloki:
“Irekiak gara, baina plaza taldeek beti izan duten izpiritu hori galdu gabe”

Zaldibiarra da Eleuterio Jauregi. 'Beloki' bezala ezagunagoa da Imuntzoren bikotea den panderejolea. 20 urte daramatzate Euskal Herriko bazterrak alaitzen. Zazpi disko ere kaleratu dituzte, musika estilo eta erritmo ezberdinak bilduz. Urtero legez, Zaldibiako jaiei eurek eman diete hasiera. Luze-zabal hitz egin dugu zaldibiarrekin.

Izenez Eleuterio eta abizenaz Jauregi zaitugu. Ezizenez, Makalo lagunentzat eta Beloki duzu izen artistikoa. Amak eta aitak Eleuterio izena jarri zidaten eta hori ez deitzaletatik edozein gauza. Beloki bigarren abizena dut.

Oso tradiziozko kontu bat da, baina trikitilariak beti bikoteak izaten ziren; trikitilaria eta panderojolea. Laja eta Landakanda, Tapia eta Leturia, Sakabi eta Egañazpi... Gu, berriz, Imuntzo eta zer? Imuntzo eta Makalo; ez zitzaion gustatzen. Imuntzo eta Jauregi; 'ez dit indarririk' eta orduantxe bazeuden Jauregi anaiak trikitilariak. Bigarren abizena Beloki nuela esan nion. Gustatu eta horixe jarri genion, gehiegi pentsatu gabe.

Geroztik pentsatu izan dut, ez genuela gehiegi asmatu. Izen pertsonala jarri beharrean, nahiago nukeela beste izen orokorrago bat jartzea. Izan ere, hasieran bakarrik ibiltzen ginen baina gero bajista bat hartu genuen, gero bateria ezagutu genuen. Laukotea joaten ginen, baina Imuntzo eta Belokiren izenean. Diskriminazio kontu bat ere badago; atzean daudenak zer. Saiatu ginen talde izaera ematen, baina alperrik izan zen. Jendearentzat Imuntzo eta Beloki ginen eta kitto. **Bi izeneko kasuan, batzuetan ez da jakiten bat zein den eta bestea zein den. Pantxoa eta Peioren kasuan adibidez. Zuen kasuan ere bai?**

Bai, nahasketa egoten da bai. Niri askotan deitzen didate Imuntzo. Gure kasuan konfusio handia egoten da. Alaitz eta Maiderekin ere gauza bera esaten dute.

Hogei urte, zazpi disko

20 urte daramatza Imuntzo eta Beloki bikoteak Euskal Herriko plazak alaitzen. Denbora guzti horretan, zazpi disko kaleratu dituzte. "Zazpi disko grabatu ditugu. Diskoa grabatzea sekulako lana da. Disko bat proiektatzen duzunetik bukatzen duzunera, izugarritzko lana da. Gauza asko entzun behar dituzu, askotan; gauza asko idatzi, eta zaborretara bota; probatu... Prozesu oso luzea da. Disko bat egiten, guk behintzat, hiru urte pasatzen ditugu", dio Belokik. Jarraian ageri da Imuntzo eta Belokiren diskografia: Jo ezak (1991). Trikisia (1993). Saturnotrik (1996). Lousiana (1999). Ganbaran bai (2004). Gauaren helduan (2007). Gezurra ez da egia (2011).

Noiz eta nola hasi zinen panderoa jotzen Imuntzorekin?

Erdi jolasean hasi ginen. Kasualitatez izan zen. Orduan ere gaur egun egiten dudana lan berdina egiten nuen: musika, diskoak banatzen nituen dendetan. Lehenengo hiru urteak IZ-an egin nituen eta gero Elkarrera joan nintzen. Imuntzo IZ-etatik ezagutzen nuen. Imuntzo eta Epelar diskoak grabatzen ezagutu nituen IZ-n. Zarauzko denda batera joaten nintzen diskoak eramatera. Han eskolak ematen zituen Imuntzok eta han topo egin nuen berarekin. Imuntzo erdi krisi batean aurkitu nuen. Jotzen

ez zebilen asko, Epelarrek utzia zuen eta panderojolerik ere ez zuen. Panderoa jotzen nuela eta egun batean berarekin panderoa jo behar nuela esan nion, erdi txantxetan. "Egun batean nahi baduk etorri eta jolas egingo diagu", erantzun zidan. Horrelaxe hasi ginen. Kantatzen ere hasi nintzen.

Ordura arte, trikitixan ez zen ia behin ere kantatu. Guk eza gutzen dugun lehenengoa, Egañazpi izango zen. Gero Landakanda hasi zen kantatzen. Lehengo trikitilariak ez zuten kantatu. Hutsune bat egon da.

Zergatik ez zen kantatzen?

Trikitixa kalean jotzen hasi zenean, txistulariak eta biolin joleak ordezkatu zituen. Euskal dantzatan eta musikaren kultura horretan, biolina trikitria baino zaharragoa da. Arrabita deitzen zaio. Pentsa, gure bateri joleak, Arrabit du abizena. Donaixtikoa da, Baxenafarroa eta Zuberoako mugan dagoen herri bat da. Ez dut uste trikitixa deituriko abizenik dagoenik Euskal Herrian.

"Panderoa jotzen nuela eta egun batean berarekin panderoa jo behar nuela esan nion Imuntzori, erdi txantxetan"



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

e txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

EGUERDIZ IREKITA
9:30etik 19:00etara
ostiraletan:
9:30etik 15:00etara



xetai
diseinuzko altzari eta sukaldeak

www.xetai.net

nafarroa etorbidea 1, solairuartera - 20200 beasain

“Diskoa erostearen klabea aldatu da”

Plaza asko egiten al duzue?

Batik bat udan egiten ditugu plazak. Ez ditugu plaza asko ere egiten. Taldea bihurtu ginenean ere, herri txikietan, auzoetan Imuntzo eta Beloki bakarrik nahi izan zituzten. Horrek ate batzuk itxi zizkigun. Beste batzuk ireki ere bai. Biok bakarrik ez gara joaten, zortzi kanta jotzeko ez bada. Oso mugatuta sentitzen gara eta normalean ez gara joaten.

Krisirik nabaritu al duzue?

Krisia denean dago eta plazetan ere bai. Azken urte guztietan, ostatuek hartu dute protagonismoa. Lehen ostatuetan musika jartzen zen baina beste plan batean. Ez zegoen gaur bezalako altaboz eta anplifikadorerik. Sekulako ekipoa daude ostatuetan eta jendeak nahi duen musika jartzen da. Jendeak ondo pasatzeko, beti-betikoa nahi du. Eta hori tabernarientzat oso gauza erraza da. Gaztejendea, azken 6-8 urteotan, tabernetan dago. Eta kosta egiten da ateratzean. Krisia dela eta zer gertatzen da? Jendea ezin dela 3-4 ordu egon taberna batean egon eta orduan jendea guregana inguratzen da. Baina oso ohikoa da jendea gugana inguratzea, nahiko berandu, ordu biak aldera, poltsikoak hustutakoan edo nahikoa trago hartu dituen garaian. Bukatzera goazela esaten dugunean, jendea orduan builan hasten da.

Jendeak dantza egiten du?

Herri batean jendeak dantza egitea nahi bada, festa antolatzailerak ere inplikatu egin behar da eta jakin behar du festak antolatzen. Erromeri bat antolatzen den garaian, beharbada, beste zerbaitekin uztartu behar du. Txosna bat edo beste inguruan egotea garrantzitsua da eta aurretik herri afari bat egon den ala ez, garrantzitsua da... Beste osagai batzuk behar dira. Horrelako gauzak kontutan hartuta antolatzen badira festak, normalean giroa sortzen da.

Diskoek salmentari dagokionean, zer moduzkoa da egoera?

Geroz eta okerragoa! Badirudi internetetik musika jaistearen nahiko erraza dela. Baina ez da hori bakarrik aldatu. Gaur egungo gaztejendeak ez ditu 16 euro gastatzen cd batean, mp3an 100 kantu ditu eta, dohainik. Diskoa erostearen klabea aldatu da. Disko erosketaren klabe hori desagertu da.

Erosteakotan, talde kuttunarena erosiko lukete. Ez dute cd-aren formato hori nahi; nahi dituztenak bakarrik aukeratzen dituzte. Aldatu egin da. Honekin bizi beharko dugu.

Baina musika egiten jarraitu egin beharko da, ezta?

Jakina! Hortik bizi ez garenok ez gara gehiegi kezkatzen. Saltzea gustatzen zaigu, hobe da dudarik gabe. Baina gu ez gara hortik bizi eta ez gara mundua konpontzen hasiko. Ahal duguna egingo dugu eta saltzen badugu ondo eta ez badugu saltzen ez dizkiogu bi buelta emango. Hau dago eta kitto. Ezin dugu beti negarrez bizi. Aurrera egin behar da daukagunarekin, eta positiboki begiratu.

Gustura zaudete egiten duzuenarekin, ondo pasatzen duzue... Noiz arte?

Hil arte! Gure bateria joleak esaten du eszenatoki gainean hil nahi duela eta guk ere antzeko zerbait esan beharko dugu. Printzipioz ez daukagu uzteko asmorik.

Jubilatzen zaretenean ere bai?

Jubilatzen garen garaian orduan eta indartsuago! Osperik handiena jubilatutako jendeak dauka. Kanpotik datozen talde guztiak zaharrak dira eta hemen ere Pantxoa eta Peio hor daude. Urteetan jo gabe egon dira eta jublatu direnean jotzen hasi dira eta jo eta jo ari dira. Benito ere 70 urtera doa. Musikak ez du adinik.

Oraindik ere Alaitz eta Maider entzuten dira.

Haiek ibilbide bat egin zuten, garrantzitsua izan zen, indartsu sartu ziren eta hori hor gelditzen da. Rolling eta Beatles gelditu diren bezala. Indartsu sartzen baldin bazara, marka uzten duzu. Pantxoa eta Peio dezente ari dira jotzen. Zergatik? Marka utzi zutelako bere garaian, historia egin dute. Alaitzek eta Maiderrek ere berdin.

“Jubilatzen garen garaian orduan eta indartsuago arituko gara. Musikak ez du adinik”.

Trikitixak daukan sonoridadeagatik, berehala ordezkatu zituen biolina eta txistua. Askoz ere builosogoa da eta oso alaia da. Kalejirak-eta jotzen hasi ziren. Kantatu beharrik ez zegoen. Anplifikadorerik ez zegoen eta amplifikadorerik gabe kantatzea oso zaila da. Trikitiak eta panderoak hots handia ateratzen du eta horren gainetik kantatzea oso zaila da.

Kantuan hasi eta ondoko moldatu zinen beraz.

Imuntzori gustatu egin zitzaion. Ateak ireki zizkidan Imuntzok. Beldur pixka bat somatu nuen baina bestetik tentazioa ere bai. Abesten ikasteko, kantua ikastera joan nintzen Donostiako emakume batengana.

Hasi nintzen garaian gainera Imuntzok, disko bat egiteko materiala prest zeukan Epelarrekin. Berak ere parte hartu zuen. ‘Jo ezak’ diskoa grabatu behar genuen eta serio hartu nuen lana.

Erraza al da trikitilari bikote batek 20 urtean irautea?

Zein da sekretua?

Gauza asko gertatzen dira bizitza pertsonalean, familiarren... lanean... Gauza asko aldatzen dira. Gure kasuan, lana ez dugu aldatu eta. Nahiko lan moldaerrezak ditugu lanak. Malgutasuna badaukagu. Eta horrek asko errazten du lan hau egiteko.

Sekretua? Ez dakit. Nik uste bokazio pixka bat dela, eta gus-tura sentitzea egiten duzun horrekin.

Lanak banatuta dituzue: Imuntzok musika arloa eta zuk letra arloa.

Hori da. Musika arloan Imuntzok lan gehiago egiten du, bera musikaria delako, baina ideiak emate kontuan, nik ere ekarpenak egin dizkiot. Ni musika munduan nabilelako, musika gehi-go entzun izan dut beti. Baliabide gehiago izan dut beste gauza batzuk entzuteko. Gaur egun errazagoa musika entzutea baina gauzak grabatu behar ziren garaian, gauzak bilatu eta grabatu egin behar ziren. Alde horretatik asko aportatu diot. Tex-mex-a zela, Kajun musika zela... European egiten den folk kutsuko gauzak... Musika entzun egin behar da, gauza ezberdinak entzun behar dira eta jantzen joaten zara.

Musika estilo ezberdinak landu dituzue.

Askotan oso erraz eragiten utzi gara, entzun dugun musikaren arabera. Adibidez, kajun, zer da kajun? Ipar Amerikako hegoaldean, Louisianan egiten den musika bat. Argentinarrak, beltzak eta frantsesak daude. Soinu txikia jotzen dute. Rock&Rollera asko gerturatzen den musika da, baina soinu txikiarekin egin-da. Guretzat erakargarritasun handia dauka. Ilara bakarreko soinu-a da. Horrek esan nahi du ezker hauspoa asko erabili behar dela. Trikitilariarentzat oso erakargarria da. Gainera, hain musika bizia da! Oso dantzagarria da.

Azkeneko honetan polk-a gehiago landu dugu, Euskal

Herriko erromerietan eta plazetan polk asko dantzatu delako. Dantza munduan polk ikastaroak asko eman dira.

Tex-mex ere egin genuen. Flaco Jiménez-eta deskubritu genituen garaian, hortik edan genuen pixka bat. Eragiten utzi gara baina zergatik utzi gara eragiten? Guretzat oso gauza politak direlako, egiteko ez zailak, eta zuzenean plazatan jotzeko baliokoak direlako. Guk alaitasuna transmititu behar dugu eta dantzarako gogo hori zabaldu, ondo pasatuarazi behar diozu jendeari, horretarako gaude eta. Gure musika taldea horretarako da.

Irekiak zarete, beraz?

Irekiak gara, baina plaza taldeek beti izan duten izpiritu hori galdu gabe. Gu jendearekin komunikatu egin behar gara. Jendeari ondo pasatuarazi behar diogu. (Telefonoak jo dio. Irrintzia du telefonoaren soinua. Primi Erostarbe oñatiarraren irrintzia dela dio).

Gu bezalako talde batek 7 disko egin behar baditu, saiatu behar du beti disko berdinek ez egiten. Baina estiloa gehiegi aldatzea ere ez da komeni, bestela jendeak esango baitu 'hauek ez dira Imuntzo eta Beloki'. Kontutan hartu behar da.

Ematen du gu trikitilariak garela eta ez dugula besterik entzuten eta ez zaigula beste musikarik gustatzen, eta trikitixa gustatzen zaigula beste ezer baino gehiago. Beharbada ez da horrela. Guk denetik entzuten dugu, gauza ezberdin asko gus-

**“20 urte elkarrekin egiteko
sekretua? Ez dakit.**


**Nik uste bokazio pixka bat dela,
eta gustura sentitzea egiten
duzun horrekin”.**


tatzen zaizkigu. Baina azkenean zer egiten dugu? Gu plaza taldea gara eta guk jo behar dugu jendeak ondo pasatzeko eta guk jendearekin komunikatu egin behar dugu. Hor, beraz, mugatuta zaude. Estilo ezberdinak jo ditzakezu, baina beti, nolabait, herri musika edo gure dibertitzeko era hori ahaztu gabe.

Musikari bati normalean, gauza ezberdin asko gustatzen zaizkio. Arratsaldeko 5etan jartzen bazara kafesne bat hartzen, Euskal Herrian gehinean jartzen den musikak, molestatu egiten du. Zergatik? Orain tabernariak kritikatu behar ditut. Tabernariak kortauak eta kubatak mimatzen dituzte, baina ez dute ikasten musika mimatzen, nire ustez. Kasualitate handia da ni beti deseroso sentitzea tabernako musikarekin. Eta gehiengotan deseroso sentitzen naiz.

Bateria eta bajua sartu zenituztenean, aldaketa handia izan al zen?

Bai. Baina beharrezkoa izan zen guretzat. Bateria sartu genuen garaian jolas asko egin genuen. Erromerien bukaeran, beste gauza batzuk jotzen ditugu. Giroa sortzen baldin bada, bertsioak jotzen ditugu, goizeko 2etatik atzera. Ertzainak, Kortatu... horrelako gauzak. Guk ere badaukagu gure '40 principales'. Kubako musika tradizional pixka bat, hemen mitiko bihurtu diren taldeena... Jendeagatik jotzen dugu, baina guregatik ere bai. 3 ordu jotzen aritu ondoren, beste zerbait jo nahi duzu. 'Egunero, dena okerrago...'. Horrelako gauzak kantatzea mundiala da. Guk ondo pasatzen dugu, eta gu ondo pasatzen ari bagara, hori transmititu egiten da. Nik uste, inportantea dela guk ondo pasatzea.





“Bob Marley beti ondo sartzen zait”

Musika talde bat:

Ez nizuke esango. Bob Marley beti ondo sartzen zait; goizean lehenengo orduan, arratsaldeko kafesnean, eta gaueko hamarretan ere bai.

Plaza bat:

Akabatu egingo naute, baina aurten Ibarra.

Abesti bat:

‘Imagine’.

Zaletasun bat:

Asko ditut. Mendia.

Oporretarako leku bat:

Ez daukat leku bat; oporretarako leku ezberdinak izan behar dute. Desberdinak, baina inguruan mendia baldin badute, hobe.

Amets bat:

Nik uste dut euskaldun gehienok daukagun ametsa: gu nor izatea. Nor izatea eta lege arrotzei esplikaziorik eman behar ez izatea.

“Trikitixaren presentzia hor dago euskal taldeetan”

Nola laburbilduko zenuke trikitiaren egoera?

Egoera hobeak edo potenteagoak izan ditu: musika guztiak orokorrean ere bai. Trikitixak ez du galdu beste zerbaitekin irabazteko. Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar... garai hartan boom-a izan zen. Orain ere badaude, Euskal Herrian punta-ko taldeak direnak, eta trikitixa talde horretako partaide da. Esne Beltza, adibidez, trikitilaria da Solano eta sorkuntzak trikitixatik egiten ditu. Gose ere hor dago. Inesek musika elektrikoarekin eta trikitixarekin egiten ditu nahasketak. Ze esatek? Ere hala da... Trikitixaren presentzia hor dago euskal taldeetan.

Nik beti esaten dut, trikitixa munduko jendeak zertxobait irekiagoa izan beharko luke. Musika gehiago entzun behar lukete, joera berriak gehiago entzun, gehiago arakatu.

Musikaz Imuntzo eta letraz, zu zeu arduratzen zara.

Letrak moldatzen ditut, letrak egiten ditut, letrak enkargatzen ditut...

Bertsolari puntua badaukazu orduan.

Badaukat bai pixka bat. Kostatzen zait, baina gustatzen zait egitea.

Lehenago bertsolariak eta gaur egungoak sartu dituzue azkeneko diskoan. Zein letra mota bilatzen duzue?

Denetik. Beti dago zertaz idatzia. Politika kontuekin sartzea gustatzen zaigu. Politika egoera zehatzak daude beti eta gustatzen zaigu ikutu bat ematea. Gauza sozialei ere bai: abiadura handiko trenari buruz baditugu bi kantu eginak. Denetik. Maitasun kontua oso presente dago. Lan polita da baina denbora behar da.

Zeri buruz idatziko zenuke gustura?

Talentua baneuka, gauza askotaz. Edozer gauzataz. Askotan letrak idaztera, barruan dauzkadan hainbat gauzek bultzatzen naute. Baina alde batera uzten ditut, karga emozional handi samarra daukatela iruditzen baitzait. Niri momentu honetan etortzen zait gai bat: iloba bat daukat preso. Iloba horrek barruan ume bat izan du eta orain bigarren bat. Beti buruan daukat horiei kantu bat egitea baina zer kristo esango dut! Bertsoak egingo nituzke baina bertsoa oso zuzena da. Gehiago gustatzen zait, adibideak jarritz, beste era batera, baina nahikoa zaila egiten zait.

Azkeneko diskoan Lazkao Txiki ere gogoan izan duzue.

Argia irakurtzen ari nintzela irakurri nuen, Lazkao Txikik esan zuen bezala, “politikan ez dago gauza politikan”. Sekula entzun gabe nengoen eta oso polita irudituz zitzaidan. Imuntzori esan nion esaldi bat banuela, estribilloa ere izan zitekeena. Hori dela eta, kantu bat egin dugu esaldi horrekin.

Baserri eta Uztapide ere bai.

Hori aspalditik neukan buruan. Baserriren eta Uztapideren bertsoak musikatu nahi nituen. Aritxulegiko bertsoak dira; gerra garaian Aritxulegiko tunelak egin ziren garaioak. Elkarte batean biek kantatutakoak dira. Musika egin genuen, trikitixa, gitarra eta biolinarekin. Kapritxo bat zen.



GOIERRI
Goiztiri AEK
Maila guztiak ordutegi guztiak
Santa Maria Kalea 4-2-ekz
Ordizia / 943889174
ordizia@aeak.org
Urbialde Plaza 7 Behea
Beasain / 943889340
beasain@aeak.org

ikasi euskara
eman izena

aeak-n

Azkeneketa ofizialak eta hituak hamalagutik www.aek.org 902 36 22 94

Zaldibia

Santa Fe jaiak

Urriak 6, osteguna: Santa Fe eguna:**11:00etan:** Meza Nagusia.**11:30ean:** Zezenak eta pottokak plazan.**11:45ean:** Nerea Elustondo eta Iker Zubeldia bertsolarien saioa.**12:00etan:** Herriko trikitilarien saioa herrian zehar.**18:00etan:** Esku-pilota partidak. Lehenengo partida, Afizionatuak lau t'erdi barruan: Goikoetxea / Sukia (Zaldibia). Bigarren partida, Profesionalak: Mendizabal I – Galarza VI / Mikel Goñi – Goñi III.**19:00etan:** 'Kuxuxtu' txaranga.**Urriak 7, ostirala: Mozorro gaua:****11:00etan:** Hildako herritarren aldeko Meza Nagusia.**12:00etan:** Hamaiketako jubilatuentzat.**11:00etatik 13:00etara:** Oreka zirko eskolarekin, haurrentzat zirko tailerrak plazan.**16:30ean:** Zaldibiako Pilota eskolako eta Afizionatuen esku-pilota partidak. Lehenengo Zaldibiako pilota eskolako kideen partida: Irastorza – Elizegi / Garmendia – Oria. Ondoren, mutil jubenilen partida: Nazabal (Zaldibia) – Elustondo (Berrobi) / Mujika (Tolosa) - Oria (Zaldibia).**18:00etan:** Zaldibiako Trikitixa eskolako ikasleen kalejira.**18:30ean:** Herri kirol desafioa.**20:00etan:** Txosna Batzordeak 'Dagozkien eskubideen jabe, Euskal Presoak Euskal Herrira'.**23:00etan:** Dantzaldia 'Garraxi' musika taldearekin.**01:30 aldera:** Herritarren Play back saioan.**Urriak 8, larunbata: Gazte eguna:****11:30ean:** Guraso Batzordeak antolatuta, haurren jolasak plazan.**12:30ean:** Ordiziako Errondailaren kalejira.**Txozna batzordeak antolatuta:****13:00etan:** Nesken arteko sokatira apustua: Zaldibia-Anoeta.**Ondoren:** Trikiti-poteoa.**14:30ean:** Gazte bazkaria.**Ondoren:** 'Gartxot'ekin kantu herrikoiak.**18:00etan:** Dantza eta bertso kalejira.**20:00etan:** Manifestazioa eta ekitaldia.**22:00etan:** 'Manillaren Iturriaga' taldearen kontzertua.**23:30ean:** Dantzaldia 'Ingo al deu' musika taldearekin.**Urriak 9, igandea:****10:30ean:** Zaldibiako I. herri lasterketa, haurrak.**11:00etan:** Zaldibiako I. herri lasterketa, helduak.**12:30ean:** Iztueta dantza taldearen saioa plazan.**18:00etan:** Mozorro-festa eta haurren jaialdia. Takolo, Kuki eta Koxmo pailazoen saio laburrak.**Urriak 15, larunbata: Koadrilen eguna:****11:00etan:** Herriko txistularen jalejira.**13:00etan:** Koadrilen kalejira 'Jun Da Jo' txarangarekin.**14:30ean:** Bazkaria herriko plazan.**Bazkalondoren:** 'Jun Da Jo', txarangak girotuta, koadrilen arteko jokoak eta kalejira.**23:30ean:** Dantzaldia 'Trikitizio' musika taldearekin.Bertako informazioari
bertako produktuakEgin GOIERRITARRAren
eta HITZAren harpidedunurriaren 31 baino lehen
eta jasoartzai gazta,
Idiazabal jatorri izenarekin,

OPARI

Harpidedunen artean,
azaroaren 2an, **asteburu bat zotz egingo**
dugu Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

hitza info

Goi
Goierritarra abizkaria

Beasain

Bareak I. Asteburua

Urriak 7, ostirala:

19:00etatik 21:00etara: Pintxo lehiaketa.

21:30ean: Pintxo lehiaketaren sari banaketa Bideluzen.

Urriak 8, larunbata:

10:00etan: Stock azokaren irekiera Loinazko San Martin plazan. Ordutegia: 10:30etik 14:00etara.

11:00etatik 14:00etara: Quad eta balancibike zirkuitoak Igartza eta Ezkiaga auzoetan.

16:00etatik 19:00etara: Quad eta balancibike zirkuitoak Igartza eta Ezkiaga auzoetan.

17:00etan: Stock azokaren irekiera Loinazko San Martin plazan. Ordutegia: 17:00etatik 20:30era.

20:00etatik 22:00etara: Trikipoteoa Bareak tabernetan.

23:00etan: Rock kontzertua Bideluze plazan.

Urriak 9, igandea:

11:00etan: Stock azokaren irekiera Loinazko San Martin plazan. Ordutegia: 11:00etatik 14:00etara.

11:00etatik 14:00etara: Puzgarriak eta goming Igartza eta Ezkiaga auzoan.

16:00etatik 19:00etara: Puzgarriak eta goming Igartza eta Ezkiaga auzoan.

17:00etan: Stock azokaren irekiera Loinazko San Martin plazan. Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara.

18:00etan: Txokolate jana plaza azpian.

Boluntario astea

Urriak 7, ostirala:

19:30: Boliviako 'Ensamble Moxos' taldearen musika eta folklore emanaldia, Usurbe Antokian.

Idiazabal

Urriko ekintzak

Urriak 6, osteguna:

17:30ean: Izaskun Mujika ipuin kontalaria, Udaletxeko areto nagusian.

Urriak 14, ostirala:

22:00etan: 'Baginaren bakarriketa' antzerkia, Gusaso Elkartean. 16 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 5 euro.

Urriak 17, astelehena:

17:30ean: Hitzaldia: Ongizatea erabiltzen. Jubilatuen elkartean.

Euskal dantza ikastaroa

Larunbat arratsaldetan, 13 urtetik gorakoentzako euskal dantza ikastaroa izango da urriaren 22an hasita. 90 euro ordaindu beharko da matrikula. Udaletxean eman behar da izena, urriaren 14a baino lehen.

II. Hizkuntzen ginkana

Iep! Idiazabalgo Euskara Planaren Jarraipen Batzordeak, II. Hizkuntzen Ginkana txapelketa antolatu du. Astean behin bi galderari erantzun beharko zaie. Lehenengo bi galderak urriaren 5ean botako dituzte eta azkenak azaroaren 23an. Lehiaketan edonork parte har dezake. Txartelak herriko denda, ile apaindegi eta tabernetan jarriko dira eta erantzun ondoren, propio jarritako postontzian sartu beharko dira. Hiru sari egongo dira: herriko denda, ile apaindegi eta tabernetan gastatzeko 200, 100 eta 50 euroko txartelak.

ARANDIA GARAJEA
MULTIMARKA

ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK

N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

biok
zerbitzuak

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

pttk
ordizia

Pintxo hotz eta beroak
Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA T 943 16 03 04

Ezkio Itsaso

Sagardoaren astea

Urriak 4, 5, 6, 7, 10, 11, 13 eta 14:

11:30etan: Sagar zanpaketa.

Urriak 8,9 eta 12:

12:00etan eta 17:00etan: Sagar zanpaketa. Antzespesak, kirikoketa, bertsolariak eta albokariak.

Familiantzako tailer didaktikoak

Urriak 8, larunbata:

17:00etik 18:30era: Sagar biltzea.

Urriak 15, larunbata:

17:00etik 18:30era: Dolarea martxan.

Urriak 22, larunbata:

17:00etik 18:30era: Basoko sekretuak.

Urriak 29, larunbata:

17:00etik 18:30era: Udazkeneko azoka.

Tailerrak dohainik dira. Izena aurrez ematea gomendatzen da: 943722978.

Ormaiztegi


Arrastoak azoka, urriaren 9an

Jatorrizko euskal animalia espezien XII. erakusketa izango da urriaren 9an, Ormaiztegin. 10:00etatik 14:30era, hainbat euskal animalia gertutik ezagutzeko aukera izango da. 11:00etatik aurrera, guneko bakoitzean, megafoniaren bitartez elkartekideek euskal animalia espezi bakoitzari buruzko argibideak azalduko dizkiete bertara hurbildutakoiei. 12:30etik aurrera berriz, betizuaren pintxoak dastatzeko aukera izango da. Informazio gehiago Goierrihartxon.

Segura

Euskal Herriko dantza txapelketa

Urriaren 9an jokatu da 35. Euskal Herriko dantza txapelketa, arratsaldeko 6etan, Baratzeko pilotalekuan. Atsedenaaldian Aiert Beobideren zuzendaritzapean, Sor-k saioa ikusteko aukera izango da.



35.
EUSKAL
HERRIKO
dantza
txapelketa

SEGURA

2011

Urriak 9

18:00etan

BARATZE pilotalekuan

Atsedenaaldian :
AIERT BEOBIDEREN
ZUZENDARITZAPEAN SOR-K SAIOA
IKUSGAI

Antolatzaile



SEGURAKO UDALA

Laguntzaileak



EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



gizarte kutxa



EROSKI bidaiak zurekin



Gipuzkoako Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



eitb

Beasain

Goieniz zine klubaren ziklo berria

Urriaren 6tik abenduaren 22ra bitartean izango da Goieniz zine klubak antolatutako XXXIV. zikloa. Ostegunetan, Beasaingo Usurbe Antzokian izango dira emanaldiak, gaueko 9etan. Sarrerak 4 euro balio du. Ziklo osoa abonoa, 20 eurotan eros daiteke.

Urriak 6: 'En un mundo mejor'. Zuzendaria: Susanne Bier.

Urriak 13: 'Rojo Oriental'. Zuzendaria: Raja Amari.

Urriak 27: 'Miel'. Zuzendaria: Semih Kaplanoglu.

Azaroak 10: 'Tamar Drewe'. Zuzendaria: Stephen Frears.

Azaroak 24: 'Women without men'. Zuzendaria: Shirin Neshat.

Abenduak 1: 'Animal Kingdom'. Zuzendaria: David Michöd.

Abenduak 22: 'Una mujer, una pistola y una tienda de fideos chinos'. Zuzendaria: Zhang Yimou.

Legorreta

IV. Film labur lehiaketa

2011ko Legorretako kultur astea Elkartasuna gaiaren ingurukoa izango da, eta bertan gauzatuko diren zenbait ekintzen artean IV. Film labur lehiaketa burutuko da. Telefono mugikorraz, argazki makinaz edo bideoz filmatutako pelikulen lehiaketa da eta partaidetza eta sormena bultzatu nahi dira. Lehiaketan edozeinek parte har dezake eta film bakoitzak ezingo dute 5 minutu baino gehiago iraun. Film laburren gaia Elkartasuna da. Aurkezteko epea urriaren 21ean amaituko da. Sari banaketa urriaren 29an egingo da 22:00etan Legorretako herri zineman aurkeztu diren lanak ikusi ondoren.

Ordizia

Artisaualdia urriaren 7tik 9ra

2010eko geldialdiaren ondoren, urriaren 7tik 9ra izango da XIII. Artisaualdia. Gipuzkoako eta inguruko 30 artisau elkartuko dira Ordizian, Beti Alai pilotalekuan. Sarrera dohainik izango da.

'Ardia eta artisautza' izango da aurtengo Artisaualdiaren gaia, IV. Ardoaren eta Gaztarekin azokarekin bat egingo baitu. Tailerrak, erakustaldiak, proiektzioak, erakusketak... denetik izango da. Azokaren azkeneko egunean, igandean, eguerdiko 12etan, txalaparta kontzertu berezia egin nahi dute.

Ardo eta gazta azoka

Urriaren 7an eta 8an, Autonomia Erkidegokoetako ardo eta gazta ezberdinak dastatu eta erosteko aukera izango da. Ostiralean, 18:00etatik 21:00etara egongo da azoka irekita eta larunbatean, 11:30etik 14:30era eta 18:00etatik 21:30era. Larunbatean, goizeko 11,30etan, 'Ordizia Txapeldun' gazta lehiaketa jokatu da.

Ordizia Kantuz

Urriak 7, ostirala:

22:00etan: 'Barikuan', D'Elilkatuz zentroan.


Urriak 14, ostirala:

20:00etan: Kantu jira Plaza Nagusian eta ondoren, 22:00etan, kantuafora Kuxkuxtu txarangarekin. Txartelak salgai daude: helduak 15 euro eta haurrak 10 euro.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07
TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)





NELSON BARBOSA
ERREFORMAK
Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**




GRAFICAS EGUZKI
IN PRIMATEGIA
NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa
HIZKUNTZA ESKOLA: INGELERA
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
TAILERRAK:
arreta, ulermena, ikasketa teknikak...
MEKANOGRAFIA

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120 - 685 722 403
ikaskide@ikaskide.net



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Ormaiztegi

urriak 9

JATORRIZKO EUSKAL
ANIMALI ESPEZIEN
XII. ERAKUSKETA



ORMAIZTEGIKO
UDALA


txindoki
taberna
jatetxea

BERTSO-AFARIA

MAÑUKORTA
ZEBERIO

Urriak 14, ostirala

Txartelak aurretik hartu behar dira

Etxezarreta kalea, 3 **ORDIZIA** Tel.: 943 88 40 49



Beasain

Udazken kulturala

Urriak 14, ostirala:

22:30ean: Bertso saioa Usurbe antzokian: Julen Agirre, Iñaki Apalategi, Sebastian Lizaso, Sustrai Colina eta Jon Maia. Gai jartzailea: Irati Arrieta. Antolatzailea: Arrano Kultur Elkarte.

Urriak 16, igandea:

09:00etan: XX. Aire zabaleko pintura lehiaketa: mihiseak zigilatze epea irekiko da, Usurbe antzokian. Antolatzailea: Arrano Kultur Elkarte.

13:30ean: XX. Aire zabaleko pintura lehiaketa: lanen aurkezpena Usurbe antzokian.

17:00etan: Haurrentzako zinea: Cars 2. Usurbe antzokian.

18:30ean: XX. Aire zabaleko pintura lehiaketa: sari banaketa, Usurbe antzokian. Ondoren, erakusketaren inaugurazioa.

Urriak 18, asteartea:

17:30ean: Hitzaldia Igartzia Jauregian: 'Berdintasunean hezten'. Antolatzailea: Seaska haur eskola.

Urriak 20, osteguna:

17:30ean: Ipuin kontaketa, Udal Bibliotekan: 'Kamishibai'.

Urriak 21, ostirala:

18:30ean: Erraldioen, buruhandien eta txistularien irteera.

22:15ean: Antzerkia Usurbe Antzokian: Txalo Produktzioak-en 'Baginaren bakarriketak'.

Beasain

II. Beasain Elkarlanean

Afrikako Beningo herritarrei elkartasuna adierazteko helburuarekin, II. Beasain Elkarlanean jaia antolatu du Herriak Elkarlanean elkarteak. Urriaren 13tik 16ra (12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 23:00etara), era ezberdinetan prestatutako olagarroa jateko aukera izango da plazapean.

Urriak 14, ostirala:

18:00etan: Haurrentzako tailerrak.

19:30ean: Entzierroa.

Urriak 15, larunbata:

Egun osoan: Artisau azoka kale nagusian zehar.

Egun osoan: Haurrentzat, zeramika eta saski tailerrak.

Arratsaldean: Haurrentzat, zeramika eta saski tailerrak.

18:30ean: Buruhandi eta erraldioen irteera txistulariekin.

19:30ean: Aurtzaka eta Ostadar dantza taldeak.

21:00etan: Elkartasun afaria, Beasaingo elkarte gastronomi-koen eskutik. Afarirako txartelak Bareak elkarte tabernetan eta Herriak Elkarlanean dendan daude salgai, 25 eurotan.

Afalondoan: Monologoak: Kike Biguri eta Alex Rabanalen eskutik; eta kantu jaia Aitor Furundarenarekin.

Urriak 16, igandea:

Egun osoan: Artisau azoka kale nagusian zehar.

Egun osoan: Haurrentzat, zeramika eta saski tailerrak.

Ordizia

Jolas eta abesti ikastaroa gurasoentzat

0-5 urteko haurren jolas eta abestiak ikastaroa antolatu du Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak. Sei orduko ikastaro laburra izango da, urriaren 13, 20 eta 27an, eta gurasoei jolas zahar eta berriak irakatsiko zaizkie. Arratsaldean izango da ikastaroa, 17:30etik 19:30era. Izena emateko: Kale Nagusia, 24an, eta 943 80 56 22 telefonoan.

Itsasondo

Mendi bizikletako travesia

Urriaren 15etan, arratsaldeko 3,30etan hasiko da Itsasondoko mendi bizikletako travesia. Murumendi, Mandubi eta Pagorriaga inguruan, 22 eta 30 kilometroko bi ibilbide prestatu dituzte. Informazio gehiago jaso eta izena emateko aukera, www.itsasondobtt.com webgunean dago.

Euskal dantza ikastaroa

Urriaren 14ra arte eman daiteke euskal dantza ikastaroan parte hartzeko izena. Azaroaren 5ean hasi eta maiatza-ekainera arte, larunbatetan, goizeko 11etatik 12,30etara, Gaztelekuan izango da ikastaroa. Hileko kuota: 30 euro.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 39. zenbakia 2011ko urria



Arrastoak

Bertako abereen erakusketa Ormaiztegin



Euskal animalia espeziak ezagutzeko aukera

Urriaren 9an, Ormaiztegin, goizeko 10etan hasiko da Jatorrizko Euskal Animalia Espezien Erakusketa, Arrastoak azoka. Animaliak protagonista dituen azoka izaten da Arrastoak. Baina animaliak, bereziak dira: euskal animalia espeziak dira denak. Garai batean gure arbasoen baserrietan izaten ziren animaliak dira, baina denborarekin galtzen joan direnak.

Ezaugarri bereziak dituzten animaliak dira eta Ormaiztegin, guztiak gertutik ezagutzeko aukera izango da. Pottokak,

terrefia, pirenaika eta betizu behiak, Enkarterriko astoa, sasi ardiak eta ahuntz azpi gorriak, mendiko behorrak, oiloak, ardi latxa eta euskal txerria. Arraza bakoitzaren historia, ibilbidea, hobekuntza genetikoa eta arrazaren ezaugarriak azalduko dira.

Horrekin batera, pottoketan eta astoetan ibiltzeko aukera ere izango da. Tripa betetzeko, berriz, zer dastatua izango da: eztia, betizu haragia, oilo haragia eta oilo salda.

Goierrihartxo animalia zalea da eta euskal arrazako animalia

hauek gehiago ezagutu nahi izan ditu. Hona hemen euren ezaugarriak:

● Pottoka:

Euskal Herriko poni arraza dugu pottoka. Animalia lirain eta indartsua. Euskal Herriko inguruneari oso ondo egokitua eta aldi berean ingurune berezi honen eraginez zaildua eta moldeatua.

● Betizua:

Euskal Herriko mendietan aspalditik bizi den basa behiaren arraza baten izena da. Beste zenbait arraza

baino eskasagoa izan da haragi eta esne ekoizpen aldetik, eta arraza joan den mendeko azken hamarkadetatik baserritarren aldetik nahiko baztertuta egon da,

● **Terreña:**

Behi terreña edo "behi terreña" Euskal Herriko zein inguruko zenbait lurraldetan zabaldutako bertako behi arraza bat da. Historikoki behi eta idi terreñoak lanerako oso estimatuak zirenez, arraza honetako abereak beste zenbait herrialdetara zabaltzen ziren ere, Gipuzkoara esate baterako.

● **Enkarterietako astoa:**

Garai bateran baserriko lanean astoa eta idia erabiltzen ziren, baina Euskal Herriko industrializazioaren ondorioz, baserriko lanak mekanizatu egin ziren. Ondorioz, kopuruari dagokionez, atzerakadarik handiena jasan duen aberea da etxeko astoa.

● **Sasi ardi:**

Sasardia Euskal Herriko mendietan bizi den bertako ardi arraza bat da. Ardi gogorrak dira, oso landatarrak eta baldintza erdi basatietan moldatzen dira mendian, askotan oso leku sastrakatsu eta zailetan. Sasardiak sarritan ia artzainen zaintzarik gabe mol datzen dira.

● **Ahuntz azpi gorria:**

Ahuntz azpigorria Euskal Herriko bertako ahuntz arraza da. Ahuntzen arraza talde hau Piriniar ahuntzen familia-koa da, eta baita, nahiz eta neurri txikiagoan izan, Guadarramako ahuntz arrazaren familia-koa ere.



Pottoka, terreña, pirenaika eta betizu behiak, Enkarterriko astoa, sasi ardiak eta ahuntz azpi gorriak, mendiko behorrak, oiloak, ardi latxa eta euskal txerria ikusi eta ezagutzeko aukera izango da Ormaiztegin.



Ordenatu argazkia

- 1:
- 2:
- 3:
- 4:
- 5:

A



B




C



D



E



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



28 ipuin barre egiteko

Autorea: Ursula Wölfel
Ilustratzailea: Bettina Wölfel
Itzultzailea: Alberdania
Argitaletxea: Alberdania
Orrialde kopurua: 60



Ipuin laburren bilduma da. Egile berarenak dira ere “29 ipuin zoro” eta “27 ipuin zopa hartzeko”. Ipuin zoroen bilduma azertu genuen tarte honetan 2008ko hastapenetan. Gaurkoan barre egitekoak gomendatzera gatoz. Irudimenarekin jolastea gustatzen zaion irakurlearentzat daude eginda bereziki ipuinok, 8-10 urtetik aurrerako irakurle autonomoentzat. Heldu batek ozen irakurrita, eta hautaketa egoki batekin, 5-6 urtetik aurrerakoan barrea eragiteko aproposa da.

Zzzzz loaren liburua

Autorea: Il Sung Na
Ilustratzailea: Il Sung Na
Itzultzailea: Aztiri
Argitaletxea: Tarttalo
Orrialde kopurua: 24

Tapa gogorreko formatu handian (26x26 cm), Coreako ilustratzaile honen maisulana konplize bikaina izango da gure txikiak ohera bideratzeko orduan. Obra honen ezaugarrien artean harritzeko moduko irudi ederrak nabarmentzen dira, testura eta forma ametszkoekin, oso indartsuak. Testua ere eraginkorra da, guraso guztiok behin eta berriz errepikatzen dugun mezua haurrengana eraginkorki iristeko: gaua lo egiteko da, hontza ez bazara behintzat.

Kopiatu irudia



Hieroglifikoa



NON ZAUDE ?

Erantzuna: Mutiloan

goierri^H artxoren
lagunak:

 **IRIZAR**





Segurako frontoia XX. mende hasierako posta-txartelean

- Aroztegia
- Altxariak neurritara
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 - Antzizar auzoa - BEASAIN
 Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala


**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



Lan bertikalak

LAN BERTIKALAK S.L.
 San Bartolomé, 12 ORDIZIA

Tel.: 605 712 018
 Tel.: 943 162 427

Web: www.lanbertikalak.es
 Mail: info@lanbertikalak.es

fatxadak, teilatuak,
 terrazak, kanaloaiak,
 bajanteak...



MUJKA

LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
 Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

Zure momentua da...

Matrikula irikita



Kirol instalakuntzak

igerileku klimatizatuak (aisirako, irakaskuntza eta haurrentzako igerilekuak, jacuzzia eta hidrotapia gunea), tobogana, terma gunea (sauna finlandiarra, infragorri sauna, lurin bainua, izotz iturria, dutxa sekuentzialak eta etzaulki termikoak), estaligabeko igerilekuak, fitness zentrua, pabiloia, frontoia, squashak, arrokadromoa, mahai tenisa, arku tiroketa gela, tatamia, balio anitzeko gelak eta batzar aretoa.

Ikastaroak

))) Aerobika / Step))) Indoor zikloa))) Mantentze gimnasia
))) G.A.P.))) Fitness (bakoitzari egokituta)))) Pilates
))) Hirugarren adineko gimnasia))) Terapeutika))) Atzegi
))) Down Igeriketa))) Haurdunentzat igeriketa))) Haurtxoen igeriketa
))) Helduentzako igeriketa))) Aquafitness



Beasaingo udala

e. info.antzizar@masquatro.com t. 943 887 900

EKOERAGINKORTASUNA ENPRESETAN



Enpresen ingurumen jarduerak areagotu eta garatzen ari diren merkatuetan ingurumen balioak enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuz, IHOBEk (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Sozietate Publikoa) **Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014** Programa abian jarri du.

Goierrin, Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan Programako zerbitzuak enpresetara bideratu eta kudeatzeko izendaturiko entitatea GOIEKI (Goierriko Garapen Agentzia) da.

Gaur egun, enpresek ingurumen arloan dituzten desfioei aurre egiteko zerbitzu ezberdinak eskuragarri dituzte:

- ✕ ingurumenari lotutako informazioa
- ✕ trebakuntza teknikoa
- ✕ teknologia arloan erabakiak hartzeko laguntza
- ✕ ekodiseinu arloko proiektuentzako laguntza
- ✕ kanpo aitortpenetarako laguntzak
- ✕ finantziario bide berriak...

Enpresek eskuragarri dituzten zerbitzu hauetariko gehienak doakoak dituzte eta gainontzekoak neurri handi batean IHOBE eta GOIEKI-ren bitartez finantzaturik dituzte.

Enpresek bizi duten egoera ekonomikoa kontutan edukirik, aipatzekoa da 2011 urtean zehar dagoeneko eskualdeko 27 enpresek Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan programarekin bat egin dutela eta programak eskaintzen dituen zerbitzuen bitartez ingurumen arloan hobekuntzak gauzatzen ari direla. Bakarkako ekimenez gain, helburu berdina duten enpresa ezberdinekin 5 lantalde osatu dira. Hauetariko 3 taldeetako kideek produktu berrien diseinuan ekodiseinua lantzen ari dira hauen lehiakortasuna hobetzeko helburuz, beste talde bateko partaideek energia kontsumoak gutxiagotzeko helburuz diagnostikoak egiten ari dira eta azken taldeko kideek emisio fokuen kudeaketa hobetzeko lanetan dabilta.

Enpresa txikiak eta ertainak ekinean

Orokorki, enpresa txiki eta ertainetan gauzatu daitezkeen hobekuntzak nabarmenak izaten dira. Hala ere, enpresa txikiek baliabide ekonomikoak eta pertsonalak mugatuak dituztenez, kasu gehienetan ez dute beraien ingurumen egoera ezagutzen eta lehen pausoak ematea zaila egiten zaie. Arazo honi irtenbidea emateko "ingurumen galetarako orientazio zerbitzua" martxan jarri da. Zerbitzu honen bitartez ingurumen teknikari batek enpresa bisitatzen du eta enpresaren ingurumen egoeraren azterketa egiten du, hobetzeko izan ditzakeen puntuak identifikatu eta hauek hobetzeko pausoak zehaztuz. Zerbitzu hau guztiz doakoa da eta dagoeneko eskualdeko 10 enpresa horretan lanean dabilta.

Bestetik, enpresa txikiei zuzenduriko ekintza ekoeraginkorra deritzon zerbitzua martxan jarri da. Zerbitzu honen helburua enpresek ingurumen hobekuntzari esker; energia eta lehengaien kontsumoa gutxiagotuz eta/edo hondakinen sorrera gutxiagotuz aurrezpen ekonomikoak eskuratu ditzaten laguntzea da. Horretarako diseinatu den metodologia konkritu bat eta Euskadi mailan hautatu diren esperientzia handiko ingurumen aholkulari talde baten zerbitzuek eskura ditu enpresak.